

EGAk C1 2026

Azterketa eredua

Honako eredu hau urtean zehar moldatzen ahalko da, antolaketa beharrek
hala eskatzen badute.

1) Egunak / proba kopurua

C1 mailako Euskara Gaitasun Agiria, EGak C1, bi azterketaz osatua da: azterketa idatzia eta ahozko azterketa. Biak gainditzea beharrezkoa da EGak C1 lortzeko. Horrez gain, hizkuntza gaitasun guztiak -idatziaren ulermena eta ekoizpena, eta ahozkoaren ulermena eta ekoizpena- gainditu behar dira, baita ariketa batzuk ere.

Azterketak bi fasetan iragaten dira:

- Lehen egunean proba idatzia eta entzunaren ulermena.
- Bigarren egunean ahozko adierazpen proba.

Euskaltzaindiaren arauak dira zuzentasunaren oinarrian.

2) Iraupena

Azterketa idatziak **3 oren** irauten du, entzunaren ulermena neurtzen duen ariketa egiteko behar den denbora kontuan izan gabe.

3) Proben deskribapena

3.1) Azterketa idatzia

Azterketa idatziak bost ariketa ditu, baina egun horretan beste bat ere egiten da, entzunaren ulermenarena:

- Idazlana
- Gutuna
- Esaldiak
- Sinonimoak
- Irakurriaren ulermena
- Entzunaren ulermena

a) Idazlana

Bi gai proposatuko dira aukeran eta azterketariak horietako bat garatu beharko du. Azterketariak 250 hitz inguru idatzi beharko ditu.

30 punturen gain neurtua den ariketa hau gainditzeko, azterketariak 15 puntu erdietsi beharko ditu gutienez. Azterketa idatzia gainditzeko, baitezpadakoa da azterketariak idazlana gaindi dezan.

b) Gutuna

Bi gai izanen dira aukeran eta azterketariak horietako bat gutun gisa garatu beharko du. azterketariak 150 hitz inguru idatzi beharko ditu. 10 punturen gain neurtua da ariketa hau.

Azterketa idatzia gainditzeko, baitezpadakoa da azterketariak idazlana eta gutuna egin ditzan.

Idazlana eta gutunaren kalifikaziorako ondoko alderdi hauek hartuko dira kontuan: zuzentasuna, egokitasuna, diskurtsoaren koherentzia/kohesioa eta aberastasuna.

c) Esaldiak

Emandako esaldien baliokideak hautatu beharko ditu azterketariak:

c).1 - Bost esalditan, bakoitzaren egitura baliokidea duena hautatu beharko du, lau aukeraren artean.

c).2 – Bost esalditan, bakoitzarentzat, akatsik gabekoa hautatu beharko du lau aukeraren artean.

Erantzun zuzen bakoitzak puntu erdiko balioa du. 5 punturen gain neurtua den ariketa bikoitz hau gainditzeko, azterketariak 2,5 puntu erdietsi beharko ditu gutienez *. Erantzun okerrengatik ez da punturik kenduko.

d) Sinonimoak

Testu labur bat(zu)e(t)an azpimarratuak diren hamar hitzen sinonimoa aurkitzeko, bakoitzeko proposatuak zaizkion lau hitzen artean bat hautatu beharko du azterketariak. Hitz horietako bakoitzak testuinguruan duen erranahia kontuan harturik hautatu beharko du baliokidea.

Erantzun zuzen bakoitzak puntu erdiko balioa du. 5 punturen gain neurtua den ariketa hau gainditzeko 2,5 puntu erdietsi beharko ditu gutienez*. Erantzun okerrengatik ez da punturik kenduko.

*Sinonimoen eta esaldi berridatzien ariketen kalifikazioak bilduko dira eta bietatik batean 2,5 puntu lortu ez bada ere, bien artean gutxienez 6 puntu lortuz, gainditutzat emanen dira. Azterketa idatzia gainditzeko, baitezpadakoa da sinonimoen eta esaldi berridatzien ariketen bilduma gainditzea.

e) Irakurriaren ulermena

Testu batzuk aurkeztuko zaizkio azterketariari, horiei buruzko ulermen galderen erantzun egokia hauta dezan.

10 punturen gain neurtua den ariketa. Azterketa idatzia gainditzeko, baitezpadakoa da azterketariak ulermen proba gaindi dezan.

f) Entzunaren ulermena

Azterketa idatziaren egunean egingen da ariketa hau.

Grabaketa zatiak entzuten ditu azterketariak. Zati bakoitzari buruz galderak egingen zaizkio eta erantzun zuzena hautatu beharko du, aukera anitzekoak edo zuzena/makurra moldean emanen zaizkion erantzunen artetik.

5 punturen gain neurtua den ariketa. Ahozko azterketa gainditzeko, baitezpadakoa da azterketariak ulermen proba gaindi dezan.

3.2) Ahozko adierazpena:

Bi ariketa ditu:

- Dokumentu baten ahozko azalpena.
- Bat-bateko elkarrizketa saioa.

Azterketariak 20 bat minutu izanen dute probaren lehen ariketa prestatzeko. Bi aztertzailez osatu epaimahaiak, binaka entzuten ditu azterketariak. Probaren iraupena 20 bat minutukoa izanen da, orotara.

20en gain neurtua den proba hau gainditzeko, 10 puntu erdietsi beharko ditu gutienez.

Proba hau gainditzea baitezpadakoa da C1 mailako EGA gainditzeko.

Ahozko azterketaren batez bestekoa gero egingen da, ariketa honen eta "Entzunaren ulermena" ariketaren artean.

a) Dokumentu baten ahozko azalpena

Azterketari bakoitzari gai desberdin bat emanen zaio idatziz, hogeituz prestatzeko. Ondotik, azterketari bakoitzak bere aldian, egokitu zaion informazioaren bost bat minutuko azalpena eman beharko du honako elementuak kontuan hartuz:

=> gaiaren aurkezpen zuzena, aberatsa eta ongi egituratua egitea

=> mamiaren puntu funtsezkoenak deskribatzea

=> iritzi edo gaiaren hedadura posiblea proposatzea azterketariak bere baitatik.

Azterketari bakoitzak frogatu beharko du ere, besteak egin duen aurkezpena ulertu duela, aztertzaileak egingen dion galdera bati erantzunez.

b) Bat-bateko elkarrizketa saioa

Aztertzaileek gai bat emanen diete azterketariei. Azterketari bakoitzak gai horri buruzko ikusmolde bat garatu beharko du.

Azterketariak elkarrizketan arituko dira, emana zaien ikuspuntura egokituz. Elkarrizketa edo eztabaida bideratzeko edota orekatzeko, aztertzaileek parte har dezakete. Azterketariak, bien artean, guti gora behera zazpi minutuz arituko dira.

4) Puntuazioa

Azterketako ariketak eta puntuazioak gisa honetan banatuko dira:

EGAk C1: azterketako proben puntuazioa			
Azterketa-probak	Ariketa	Gehienezko puntuazioa	Gainditzeko gutieneko puntuazioa
Proba idatzia	1) Idazlana	30	15
	2) Gutuna	10	
	3) a Esaldi berridatzia (5 esaldi)	2.5	2.5 bakoitzean edo 6 bien artean
	b Esaldi zuzenduak (5 esaldi)	2.5	
	4) Sinonimoak (10 baliokide)	5	
	5) Irakurriaren ulermena	10	5
	Idatzia orotara	60	30/31
Ahozko probak			
Entzumena	Entzunaren ulermen ariketa	5	2.5
Ahozko adierazpena	Ahozko ariketak: azalpena + elkarriketa	20	10
	Ahozkoa orotara: (Entzunaren ulermena + mintzamena) x2	50	25
Azterketa orotara		110	

- Azken emaitza Bikain/Ongi/Aski Ongi/Gainditua edo Ez gaunditua izanen da.
- Deialdi bateko idatziko kalifikazioak, urte bereko bigarren deialdirako soilik mantenduko dira.

Laburbilduz:

- Idazlanean batez bestekoa lortzea baitezpadakoa da idatzia gaunditzeko (15/30).
- Esaldi berridatzien ariketa bakoitzean eta lexikoarenean bakoitza ez bada gaunditu 2,5 punturekin, konpentsazio-sistema erabiliko da, bien artean 6 puntu lortu beharko ditu azterketariak probak gaundituztat emateko. Proba hau gaunditzea baitezpadakoa da idatzia gaunditzeko.
- Idatziko eta ahozko ulermen ariketak gaunditzea baitezpadakoa da EGAK C1 eskuratzeko.
- Ahozko ekoizpena gaunditzea baitezpadakoa da EGAK C1 eskuratzeko.

5) Kopien kontsulta

Azterketa gaunditu ez duen azterketari batek bere kopia kontsultatu nahi izanez gero, eskaera egin dezake. Batzorde Zientifikoak data bat finkatuko du horretarako, antolaketa ahaleki hori baimentzen badute.

6) Azterketa egokituak

Behar bereziren bat duten azterketariak EGAK C1 azterketa berdintasunez egiteko parada ukan dezaten, Batzorde Zientifikoak beharrezko jotzen dituen egokitzapenak ezar ditzake, denboran nahiz baliabideetan, eskatu beharreko hizkuntza gaitasun-maila murriztu gabe betiere.

Azterketariak eskaera izen-ematearen unean egin behar du, izen-emate fitxan berean eta ondoko egunetan beharrezko mediku-agiriak izen emate epeetan helarazi beharko ditu.